

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ASPARRENEKO UDALA

Santsaerreaka kaleko urbanizazioa eraberritzeko obrak egiteko lurra okupatu aurreko aktak egitea

Araiako Santsaerreaka kaleko urbanizazioa eraberritzeko obretarako ondasun eta eskubideak okupatzeko espedientean, alkatearen gaurko ebazpen bidez, honako hau erabaki da:

Lehenengoa. 2021eko abenduaren 14a ezartzea okupatu aurreko aktak egiteko. Tokia: osoko bilkuretarako aretoa. Aktak egiteko hasierako ordua: 10:00. Ondasun eta eskubideen zerrendako hurrenkera erabiliko da eta ordu erditik ordu erdira jasoko da lurzati bakoitza okupatu aurreko akta.

1. 2 poligonoko 1871 lurzatia.

— Jabea: José Manuel Egurrola Sáez de Arregui.

— Finkaren deskribapena: Landa finka. Lehorreko laborantza lurra.

— Afekzio mota: Behin betiko okupazioa: 2 m². Aldi baterako okupazioa: 180,30 m². Ubide zortasuna: 90 m².

— Balorazioa. 282,16 euro.

2. 2 poligonoko 1184 lurzatia.

— Jabea: Rosa María Egurrola Sáez de Arregui.

— Finkaren deskribapena: Landa finka. Lehorreko laborantza lurra.

— Afekzio mota: Behin betiko okupazioa: 4 m². Aldi baterako okupazioa: 348,00 m². Ubide zortasuna: 174 m².

— Balorazioa. 475,74 euro.

Bigarrena. Aurretiazko aktak egitean, espedientean interesa duten pertsonen parte hartu ahal izango dute, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 2., 3. eta 4. artikuluetan xedatutakoaren arabera. Interesdun horiek berak edo behar bezala baimendutako pertsona batek ordezkaturata bertara daitezke, egoki jotzen dituzten teknikari eta aholkulariekin batera, bai eta, nahi izanez gero, notarioarekin ere (horiek eragindako gastuak interesdunak ordaindu beharko ditu), datuak eman edo beren eskubideen alde egoki jotzen dituzten oharrak egiteko eta aktan jasota gera daitezen (izan ere, hori da desjabetu beharreko ondasunen erreferentzia zehatzetako akatsei buruzko erreklamazioak egiteko azken unea). Era berean, jabe direla egiaztatzen duten agiriak ere eraman beharko dituzte.

Bestalde, eta okupatu aurreko aktak egiteko ipinitako eguna bitartean, interesdunek, eta honekin batera dagoen zerrendan azaltzen ez diren ondasun erreal edo ekonomikoen jabeek, egoki irizten dituzten alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte, eragindako ondasun eta eskubideen zerrendan dauden balizko hutsak zuzentzeko besterik ez.

Interesdunei jakinaraztea okupatu aurreko aktak egiteko unean okupatu aurreko gordailuaren prezio orriak formulatuko direla, eta okupazio azkarraren ondoriozko kalteengatiko kalte-ordainak kalkulatu direla, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikulua 4. eta 5. paragrafoen arabera.

Ebazpen hori izapide hutsa den egintza bati buruzkoa denez gero, ezin da errekurtsorik jarri, bai, ordea, egoki iritzitako ekintzei heldu.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Araia, 2021eko azaroaren 2a

Alkatea

CONSUELO AUZMENDI JIMÉNEZ